



## **QTLeap Press Release, January 2015**

*QTLeap* proiektuaren prentsa-oharra, 2015eko urtarrila

QTLeap proiektuak arrakastaz lortu du lehen urteko mugarría: On-line laguntza-zerbitzu eleaniztunak sortzea kalitatezko itzulpen automatikoaren bidez.

*QTLeap - Quality Translation by Deep Language Engineering Approaches.* Europako Batzordeak finantzaturiko proiektu bat da, sei estatuko zortzi partaide biltzen dituen (Bulgaria, Txekiar Errepublika, Alemania, Portugal, Espainia eta Herbehereak).

Proiektua 2013ko azaroaren 1ean hasi zen, eta 36 hilabeteko iraupena izango du. Bere helburu nagusia Itzulpen Automatikorako metodologia artikulatu eta berritzailea bat bilatzea eta sortzea da, irtenbide berriak aztertzen dituen, hizkuntza-ingeniaritzako oinarri sakonak erabiliz kalitate handiagoko itzulpenak lortzearren.

"QTLeap proiektuaren asmoak azken urteotan itzulpen automatiko eta hizkuntza-teknologiaren arloan ezarri diren ausartuenetakoak dira" Lisboako Unibertsitateko Antonio Branco irakaslearen arabera. Bera da proiektuaren koordinatzaile zientifikoa.

Proiektuak bere lehen urteko mugarrira iritsi berri da: itzulpen-sistema automatiko baten aplikazioa benetako erabilera-eszenatoki batean. Portugaleko enpresa batek eskaintzen duen online motako laguntza-zerbitzu batean lortu da emaitza. HF Higher Functions - Intelligent Information Systems Ltd enpresa hori ez da handia, ETE tamainakoa da (Enpresa Txiki edo Ertaina) eta bazkideetako bat da proiektuko partzuergoan.

Zerbitzu honekin, erabiltzaile batek Informazio-Teknologiako gailu edo zerbitzu batean duen arazo bat konpondu behar badu, galdera bat plazara dezake txat kanal baten bidez. Dagoeneko datu-basean antzeko galdera bat badago, lotutako erantzuna berehala erakutsiko zaio erabiltzaileari. Prozesu horrek laguntzen du giza lana minimizatzen, beharrezko kasuetan soilik erabiliko

baita, datu-basean antzeko galdera-erantzun pare eskuragarriak ez dagoenean.

Itzulpen automatikoko sistemaren aplikazioak hobetzen du laguntza-zerbitzu hori *helpdesk* zerbitzuari egindako galderak beste hainbat hizkuntzaz ere egin daitezkeelako. Erabiltzaileak galdera bat egin dezake beren hizkuntzaz, eta galdera hori datu-baseko galdera-erantzunen hizkuntzara automatikoki itzuliko da. Gero eskuratutako erantzuna ere jatorrizko galderaren hizkuntzara automatikoki itzuliko da, eta horrela *helpdesk*-zerbitzuak erabiltzailearen hizkuntzan itzuliko du erantzuna.

Euskara, espainiera, portugesa, bulgariera, alemana eta txekiera landu dira. Lehengo aldia da Europako horrelako proiektu batean euskara ere lantzen dela.

Itzulpen automatikoaren funtzionalitatearekin zabaldutako *helpdesk*-zerbitzu horren ebaluazioak erakutsi du dagoeneko posible izan dela oso esanguratsu den %60 inguruko murrizketa giza lanean, batez beste hizkuntza berri bakoitzeko, nahiz eta kalitate baxuko itzulpen-sistema bat erabili. Aurrerakuntza tekniko honek abantaila handiak dakartzkio negozio mota honi bere merkatu digitalaren zabalkuntzan laguntzen baitu, baita bere produktibitatea eta baliabideak optimizatzen dituelako ere, horri dagokion kostu-murrizketa errealarekin.

Informazio zabalago lortzeko eta harremanetarako, mesedez, bisitatu:

Webgunea: <http://qtleap.eu/>

Facebook: <https://www.facebook.com/qtleap>

Twitter: <https://twitter.com/QTLeap>

Linkedin: [https://www.linkedin.com/company/qtleap-project?trk=EML\\_cp-admin](https://www.linkedin.com/company/qtleap-project?trk=EML_cp-admin)

Mendeley: <https://www.mendeley.com/sign-in/>



QTLeap proiektuak diru-laguntza jaso du Europar Batasuneko Zazpigarren Esparru Programatik, ikerketa, teknologiaren garapen eta erakusketarako 610516 zenbakidun laguntza-akordioen barruan.